

GIZARTE ZIBILAREN FOROA • 2018ko martxoaren 28an

Garapen Kontseiluak gizarte proiektu bat zirimarratzen du Euskal Elkargoaren ondoan

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak (CDPB-EHGK) ia 300 jende bildu ditu, martxoaren 28an, Elkartearen Etxean; hara bildurikoetan, 200 ziren parte hartzeko lantegietan izen emanikoak. Euskal Hirigune Elkargoari garapenaren gainean aholkuak emateko duen egiteko berri horretan eta elkargoak berak galdeginik, Euskal Herriko Garapen Kontseiluak eman dio hasiera lurralderako proiektuari buruzko eztabaidari. Zehatzago erranik: Euskal Herrian, zein gizarte proiektu erakunde berriaren eta biztanleen artean?

FOROAREN IREKITZEAN, Caroline Phillips, Jean-René Etchegaray, Philippe Estèbe, Philippe Arretz, Francis Jauréguiberry, Alain Franck eta Isabelle Bagdassarian mintzatu dira, bata bestearen jarraian, osoko bilkuran.

Caroline PHILLIPS, Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren lehendakariak gogora ekarri du garapen kontseilua 1994 urteaz geroztik ari dela lurralde orekatu baten proiektua eraikitzeko lanetan. Euskal Herriko Garapen Kontseiluak zeregin handia ukan du Euskal Elkargoa sortzen eta orain harekin partzuer da, elkargoari gizarte zibilaren ikuspuntua ekartzeko eta elkargoaren politika publikoetan laguntzeko.

Jean-René ETCHEGARAY, Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariak baieztatu du ezinbestekoa dela erakundearen eta gizarte zibilaren arteko lotura: batasuna aipatu du behin eta berriz lurraldearen baloreen artean, etorkizuna elkarrekin eginen badugu eta lurralde proiektu berria osatzeko ere. Delako proiektuak lurraldearen metropolizatze prozesua sesitu beharko du eta energia eta ekologia trantsizioa bere gain hartu.

LEKUKO HANDIAREN HITZA

Philippe ESTEBE, Euskal Hirigune Elkargoa elkargo proiektua idazten laguntzen duenak Ipar Euskal Herriaren ondoriotasunaren balioa eman du agerian, batez ere elkarren jarraian egin dituen lurralde proiektuen definitzean. Tradizio hori hautetsien eta gizarte zibilaren arteko etengabeko lotura batean eraiki bada ere, deitu du gizarte zibila arteka bat egitera ere: denbora eta espazioaren arteko mugak gainditu eta urrunago so egin dezan, hala geografikoki nola agenda politikotik haratago ere.

IPAR EUSKAL HERRIAREN ERRONKA HANDIAK

Philippe ARRETZ, Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren zuzendariak erakunde horrek lurraldearen etorkizunaz duen ikuspuntua azaldu du. Lehen tokian eman du ezen «Ipar Euskal Herria ibai ibian dugula» eta orain dela 20 urtetik hona etengabe hazten ari delarik baina -horra medailaren ifrentzua- horrek dakarren zenbait arriskuei buru egin beharrean ere dela. Garapen iraunkorragoa eman dakiekeen 7 pario aurkeztu ditu: harrera eta elkartasun lurraldea izatea; ekoizpen eta kontsumo arduratsuzko elikadura ekosistema sortzea; Euskal Barnealdea lurraldearen antolamendu iraunkorraren lehentasuna izan dadila; formakuntzaren eta enpresa izpirituaren gaineko ikusmolde berria sortzea; enpresa ttipi-ttipien eta enpresa ttipi eta ertainen sarea egituratzea; arte sorkuntza eta berrikuntza balioan ematea; azken batean, Ipar Euskal Herriaren ospea antolatzea.

IPAR EUSKAL HERRIAREN GAINKO HIRU BEHAKO

Francis JAUREGUIBERRY soziologoak berriz ere galdezkatu du «kide izatearen sentimendu» hori, Euskal Herrian lehen mailako elementua baita eta hala izaten jarraitu behar luke. «Lurraldearenganako maitasun» hori babes hesi bat da bertako nola kanpoko biztanleen jarrera kontsumitzailearen aitzinean. Izan ere, lurralde anitzetan, abantailak erkatuz egin hautuen logika batez kokatzen dira jendeak (zerbitzu zenbait izan ala ez...) eta horrela harreman oso hotzak antolatzen dituzte harrera egiten dien lurraldearekin. Beste zenbait etorkin harrera eginen dien lurraldean diren baloreak bere egin eta lurraldearen etorkizunean parte hartzeko gogoak eramaten ditu lurralde batera nahiz bestera.

Alain FRANCK, hirigintza agentziaren zuzendariak erakutsi digu, frogak ere ekarriz, ezen 60 urtetik gorakoen kopuruak gora egin badu ere (bertako biztanleriaren zahartzea eta kanpotik datozen erretretadun gehiago arribatzea), Ipar Euskal Herrira heltzen diren «biztanle berriak» (urtean 3000-4000 batez beste) 25 eta 45 urte artekoak direla. Heltzen zaizkigun biztanle berriak lanean ari diren jendeak eta familia berriak dira, beraz. Gisa berean, lanpostuei dagokienean, lurraldearen ekialdearen eta mendebaldearen arteko aldea ageri bada ere, ekonomiaren dinamika atxikia da euskal barnealdean. Bada hor uste komunak zalantzan jartzeko arrazoirik...

Azkenik, **Isabelle BAGDASSARIAN** ikerlariak erakutsi digu nola gure orenen ondasunak (gizarte ondasunak, kulturazkoak, ondarea, natura ondasunak...) ez diren soilik kudeaketa publikoaren edo merkatu hutsaren ikusmoldez ikusiak. «Orenen artean» so eginez gero, baliabideak parteka daitezke eta orenen artean zaindu. Mendi lurrak horren aspaldiko adibide ditugu eta tokiko moneta, berriz, oraingo berrikuntza. Isabelle BAGDASSARIAN ikerlariak parte hartzaileei gonbit egin die egiazko «oren ongien kooperatiba» sortzeko parteka litezkeen ekimenak zerrenda zitzaten. Gero egin diren 8 lantegiekin batera mapa elkarreragilea zuzenean animatzea proposatu die.

PARTE HARTZEKO 8 LANTEGIAK

Oren bat eta erdiz, lantegi horiek aukera eman dute talde txikitik eztabaida zedin gizartearen bilakaeren gainean eta elkarbizitza hobetzeko eta Ipar Euskal Herriak dituen

erronkei arrapostua emateko pentsa litezkeen aterabideen gainean. Hona hemen eztabaida horien laburpentxoak...

Etorkin berrien harrera

Jokoan dena lehiarik ez mantendu eta, horren orde, **elkarrekikoan oinarritzea** da: nortzuk datoz, zeren xerka datoz? Zer nahi dugu transmititu (hizkuntza, kultura)? Lurraldearen **eragileak bilaka daitezten** da bertakotzeko bide onena, elkarteen sarearen bitartez.

Gizarte lotura baserri aldeetan

Hori baino areago, gaia litzateke lurralde osoko gizarte lotura eta, hartara, **hiri/herri oreka** (garraioa, emari handia...). Bada jokoan **belaunaldien arteko loturak** atxikitzea eta denborarekin areago ere izanen da hala. Abantailen artean, lurraldeak baditu hizkuntza eta kultura **azkar eta integratzaileak**.

Gazteen autonomia eta orientabidea

Duten **ingurumenaren** (gazteen ongizatea, gizarte lotura) araberakoa eta dituzten **gaitasunen** (eskolan eta beste lekuetan, aisialdian, elkarteetan engaiatuz...) araberakoa da: bilakaera horietara egokitu behar da egiten zaien laguntza bai eta, gisa berean, ematen zaien orientabidea, zehatzago izan behar lukeena.

Gazteen lekua bizitza publikoan

Bada garrantzi handiko pario bat **Herriartasunaren alde sentiberatzeko** (haurtzarotik bertatik), **erakundeak gazteen parte hartzeari zabaltzeko**, bai eta **gazteak lurraldean atxikitzeko** (formakuntza eskaintza hobea). Bestalde, gazteen ekimenak bultzatu behar lirateke ere: **gazteek, gazteentzat eta gazteekin** egitea.

Biharko lanbide eta gaitasunak

Lehen beharra lpar Euskal Herrian diren lanbide eta jardunen gaineko **ezagutza** zehatzagoa biltzea da. Gero, **gazteentzako lanaren bilakaerari** arrapostua ematea: haiek dituzten nahietatik abiatuz, lanaren ikuspuntu bat inposatu orde, eta pedagogia ereduak egokitzea ere.

Lan molde eta leku berriak

Komunikazio hobe baten bitartez sustatu behar dira, bai eta lurraldean zehar hobeki hedatu ere (itsas hegiaren deskonzentrazioa). **«Lurralde inkubatzailea»** eraiki behar da, antolaketa egokia eginez (hirugarren lekuak eta zerbitzuak, sare digitala...).

Bizilekuak eta bestelako mugikortasunak

Egiteko horietara erantzuteko, **hiria egiteko moldeak birpentsatu behar dira**: trinkotasuna, mistotasun funtzionala, mugitze molde eztiak... **Publiko bereziak** (gazteak, zaharrak, sasoiariak, segurtasunik gabeko biztanleak) kontuan hartu behar dira, bai eta **gizarte zibiletik** datozen konponbideak lagundu ere.

Ekologia eta elkartasunezko trantsizioaren alde gazarteak eta enpresek egiten dituzten mobilizazioak

Trantsizioa eginen bada, jarraitu behar da publiko zabala horri buruz **ohartarazten** eta **sentiberatzen**. Badaude abian jarri beharreko indar azkarrak: **energia berdea** ekoiztea, **ekoizteko eta kontsumitzeko** molde berriak, **ekonomia zirkularra**... Trantsizioak biztanle guztiak eta lurralde guztiak **ukitu behar ditu**.

FOROAREN BURURAPEN ETA ONDORIO GISA

Philippe ESTEBE jaunak gogora ekarri digu erregimen aldaketa bat gertatzen ari zela Ipar Euskal Herrian, metropolizatzearen eta trantsizioaren artekoa. Metropolizatzeak mugikortasuna areagotzera darama eta lurraldeen arteko interdependentzia gero eta azkarragora. Trantsizioa, bere aldetik, egun jokoan diren eta etorkizunean jokoan jarriko diren arazoei aurre egiteko gai izateko prozesua da.

Ipar Euskal Herri mailako erakundea sortzeak gure lurraldea ikusteko moldean etapa berri bati ekitera gonbidatzen gaitu. Erakunde publikoaren eta eragile sozio-ekonomikoen arteko harremanetan baitezpadako aldaketa bat dakargu ere: hori dela eta, foroa pozgarri izan da, gizarte zibilaren ikuspuntua ekarri baitigu hautetsienarena elikatzeko.

Martine BISAUTA andreak ere bozkarioz ikusi du egiteko den lana biziki handia dela baina bihotzaren berogarri ere badela...! Energia trantsizioa baita lurralde proiektuaren erdi-erdian: nolana dela ere helduko da trantsizio hori eta horren jasan ordez, hobe dugu aldaketa horren eragile izatea. Gizarte zibila ekologia eta energia trantsizio horretarako prest da jadanik eta egiazko gizarte proiektu dugu hori.

Caroline PHILLIPS andreak hetsi du foroa gizarte zibila (herritarrak, elkarteak...) Euskal Herriko Garapen Kontseiluan parte hartzera deituz, osaera berritzera baitoa.

